

# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

310 - 2023ko OTSAILA

SAGARRAREN ZUKUAZ  
GOZATZEKO GARAIA





## POSTONTZIA

✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?

✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) / 638 652 339.

## ZUZEN ETA JATOR

2

### \*Ahal naiz komunera joan?

Gero eta gehiago entzuten ditugu horrelako esaldiak:

*\*Ahal didazu zure zenbakia eman?*

*\*Ahal naiz hemen eseri?*

Esaldi hauek okerrak dira, eta gaztelaniaren eraginez esaten dira: *poder + aditza*.

Euskaraz, *ahalek* kokagune finko samarra du; hau da, aditzaren ondoren joan ohi da: joan ahal, etorri ahal... *Beharrek* ere berdin jokatzeko du, baina kalean ez dugu entzuten *\*behar duzu mendira joan?* bezalako esaldirik.

*\*Ikur hau dutenak ez dira zuzenak.*

### Orduan, nola erabiliko ditugu forma hauek?

#### Hona hemen adibide batzuk:

- Komunera joan ahal naiz? / Komunera joan naiteke?
- Hemen eseri ahal naiz? / Hemen eser naiteke?
- Nahi baduzu, nire zenbakia eman ahal dizut / nire zenbakia eman diezazuket.
- Nik lagundu ahal diot / Nik lagun diezaioket.

Azken kasu hauetan, besterik gabe etorkizuneko formak ere erabil ditzakegu:

- Emango didazu zure zenbakia?
- Egingo didazue mesede bat?

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Zaporaak, Asun Olaetxea, Nere Iriarte, Juan Antonio Garaikoetxea, Lekunberriko Udala, Ttuturre K.E, Ander Elizalde, Andoni Mujika, Eider Martirena, Idoia Igoa, Labrit.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

· MAKETAZIOA:

Oier Zuñiga

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

**LABRIT**  
MULTIMEDIA

04



**KUXKUXEAN** Otsaileko zorion agurrak.

10



**ELKARRIZKETA**



Asun Olaetxea

14



**BATZARRE**

16



**ERREPORTAJEA**



Sagardoa, txotxetik

22



**KIROLA** Araitz-Betelu herri krosa

24



**KIROLA** Elkarrizketa  
Iratzi Ibarbia



27



**MAITE DITUT MAITE** Betelu-Limitte-Intza

28



**PLAZATIK PLAZARA**  
Beteluko Hirigintza Plana

31



**AGENDA**





### Urtzi Argiñarena Saralegi

Otsailaren 5ean, 10 urte.

Daoneko 10 urte Urtzi! Haunditzen aia  
zea, seittu oain bezain jator gue bizitzak  
alaitzen. Asko matte zattuu!

### Araitz eta Izai Ezeiza Martiarena

Otsailaren 1ean, 11 urte

eta otsailaren 2an, 8 urte.

Zorionak bikote!! Ongi pasa zuen urtebetetze  
eguna. Muxu handi bana etxekeo partez.



### Itxaso Oreja Altuna

Otsailaren 1ean, 8 urte.

Urte askotako politte!! Segi beti bezain  
alai! Ongi ongi pasa zure eune! Muxu  
pottolo bat denon partez!!



### Iraia Saralegi Sotil eta Ana Buldain Argiñarena

Otsailaren 16an, 3 urte eta 55 urte.

Zorionak bikote! Egun politte pasa  
dezazuela eta muxu pilo bat familia  
guztiaren partetik!



### Ane Eguzkitza Telletxea

Otsailaren 3an, 4 urte.

Aunitz urtez, Ane! Besarkada haundi bat  
familia guztiaren partez, "Txokolatintxo".  
Zorionak eta gozatu zure egunaz, maitia!



### Beñat eta Lier Goikoetxea Arévalo

Otsailaren 1ean, 6 urte.

Zorionak bikote!!!

Muxu handi bat  
famiaren partez!!!  
Jarraitu hain jatorrak  
izaten!!!



### Maddi Eskudero

Ilbeltzaren 16an, 6 urte  
bete zituen.

Zorionak, Maddi!!!

Handitzen-handitzen  
zoazela ziztu bizian!!  
Jarraitu orain bezain  
alai, jator eta zorionsu  
izaten!!

Maite zaitugu,  
Madditu!!! Muxu handi  
bat etxekeo guztien  
partez!!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren  
20a baino lehen.

**aitz  
berri**

edertasun  
zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
[aitzberri@hotmail.com](mailto:aitzberri@hotmail.com)

Ile-apaindegia  
Estetika  
Presoterapia  
Podologia  
Laser-depilazioa eta  
depilazio elektrikoa  
Dietista-nutrizionista  
Mikropigmentazioa ezpai-  
netan  
Mikroblading bekainetan

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonia eta Faxe: 948507343  
[carpinteria@carpinteriaazpiroz.com](mailto:carpinteria@carpinteriaazpiroz.com)

**urrutia  
enea**

etxekeo hestekiak  
**LEKUNBERRI**





## ALDI BATERAKO ERREGULAZIOA TORRASPAPEL FABRIKAN

Torraspapel fabrikak iragarri du langileen kontratuak aldi baterako etengo dituela. Espedienteak langile guztiei eragingo die, 356 langileri, baina erregulazioa jarduera eta sail bakoitzaren arabera izanen da. Gehienez 150 erregulazio egun izanen dituzte langileek, baina horrek ez du esan nahi guztiak erabiliko dituztenik. Enpresak argudiatu du arrazoi teknikoak eta antolamenduzkoak dituztela.



## ZURE ETXEBIZITZA NOLA ZAHARBERRITU JAKIN NAHI DUZU?

Lekunberriko Udalak antolatuta, *Ezagutu zure etxebizitza behar bezala birgaitzeko* hitzaldia emanen du Koldo Monrealek udaletxeko batzar aretoan otsailaren 15ean, 19:00etan. Hizlariak azalduko du nola bihurtu etxebizitza bat iraunkor, eraginkor eta planetako baliabideekin eta osasunekin konprometitua. Etxebizitza bat zaharberritzen hasi aurretik kontuan hartu beharreko ezaugarriak aletuko ditu, hala nola nondik hasi eta zer jakin prozesuarekin hasi aurretik.



## CITIZEN ON PROIEKTUA MARTXAN DA


Komunitatea indartzeko helburuz, Citizen On izeneko proiektua jarri dute martxan Lekunberri. Asmoa da elkarteak eta kolektiboak prestatzea eta laguntzea, partaidetza prozesuak hobetzeko. Proiektu pilotu bat da, eta Azkoienen eta Alesbesen ere abiatu dute. Zortzi saio izanen dira, hiru ordu ingurukoak. Otsailaren 7an aurkeztuko dute egitasmoa, udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan. Parte hartzeko, eman izena Lekunberriko Udalaren webgunean dagoen estekan.

## ► Asier Elizalde (Betelu)



*Herri txikien zaintza  
bolondresen gidaritza  
egoismoak itota dauka  
norbere bizitza  
Auzolanean gabiltza  
lor dezagun gure giltza  
elekziotan dugu guztiok  
gure azken hitza*

*Urteetako plangintza  
amaitzekotan gabiltza  
denon artean gaindi dezagun  
datorren ekaitza  
Betelu, Gorriti, Intza  
Errazkin, Aldatz ta Gaintza  
Denok batera lortuko dugu  
Nahi dugun emaitza*



*Doinua: Mendian gora haritza* Hurrengoa: Mikel Alvarez (Betelu)

## KOMUNITATEA SORTZEA: ANIZTASUNA GUZTION ONERAKO BATZEA

Bizi ditugun garaietan, eztabaidaren fokoa, elkarrengandik bereizten gaituen gauzetan jartzen da batzen gaituen gauzetan baino; eta beraz, gehiago zentratzen gara urruntzen gaituen horretan sakontzen, konpartitzen ditugun printzipio eta helburuak balioan jarri eta landu beharrean.

Denok dakigu puntu komunak, adostasunekoak, lotzen gaituenekoak eta abar bilatzea ona dela, denak desberdinak garela dakigun bezalaxe; baina ukaezina da, batzuetan, inolako enpatiarik gabe jokatzeko dela eta honi gainera, desberdinekin elkarriketarako, negoziatzeko eta adosteko borondate falta izugarria gehituko nitzioke. Zorionez, salbuespenak ere badaude.

Esparru orokor horretan, beti esan izan da Nafarroa aniztasunaren lurraldea dela. Bere alderdi guztietan. Eta, zalantzarik gabe, komunitate kohesionatu baten oinarria aniztasun hori ezagutzea, ulertzea, ahalbidetzea eta horrekin elkarbizitzea da. Aniztasun hori lurrari, familiari, talde bati, sigla batzuei, elkarte bati, enpresa bati,... loturiko pertenezkoa sentimendua da; azken finean, komunitate bati loturikoak.

Azken urteotan komunitate horietan guztietan, trantsizio energetiko eta ekologiko kontzeptuak, krisi klimatiko eta energetikoaren gisara, eguneroko eta edozein esparrutako elkarriketetan agertzen dira. Agortze-sintoma argiak erakusten dituen gure planeta zaintzeko interes komunak ditugu eta ahalik eta kostu ekonomiko eta sozial txikienarekin bada hobea; horrek zalantzarik gabe, teoriarik elkartzeko gaitu, baina praktikara ere eramane beharko genuke.

Bada, zentzu eta testuinguru horretan, komunitate energetikoak sortzen ari dira, edo behintzat gure inguru hurbilean indarra hartzen hasiak dira, Europako herrialde batzuetan ezagutzen baitira kasuak. Izan ere, duela hilabete gutxi arte, legediak ez zuen laguntzen martxa operatibo eta praktikoa, baina haren erregulazioan izandako aldaketek, erakunde eskudunen bultzadak eta parter teknologiko eta juridikoek eredu desberdinak garatzearekin batera, egoera iraultzea ekarri du, hilabete gutxian.

Esan dudana bezala, formula desberdinak egonda, bereziki azpimarratu nahi dut "Comunidad Energética TODA Navarra", komunitatearen sorreraren adibide gisa, gizartearen zati handi batek partekatzen duen kezka bati garaiz eta taxuz erantzuna ematen diona lankidetzara publiko-pribatutik. Nafarroako Merkataritza Ganberak sustatuta, eta Nafarroako Gobernuaren, Cenerren, Edinorren, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Nafarroako udal eta kontzeju askoren laguntzarekin, energia-komunitate bat eratu da berriki. Plataforma horrek udal-estalkiak erabiliz, plaka fotovoltaikoak instalatuko ditu eta proiektuaren balorazio altuagatik IDAE-ren dirulaguntza garrantzitsu bat izango du (instalazioen inbertsio eta gastuen %60 betetzen ditu, guztira, 4,5 milio inguruko balioa duena). Horrekin 28 udalerritan energia berdea sortuko du komunitateen-komunitatearekin bat egiten duten etxe eta denda txiki guztiek partekatutako autokontsumorako. Gainera, ingurumen eta gizarte-onuraz gain, argiaren fakturan aurrezpen nabaria suposatuko du sortutako energiagatik eta konpartitutako negoziatioagatik eta bolumenagatik. Horrek, 5.000 etxe eta komertzio txiki baino gehiago suposatzen duelarik eta hori guztia, bizilagunen inbertsiorik gabe.

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

**ALTSASU - IRURTZUN**  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
.....  
**24 ORDUKO TELEFONOA**  
• 948 19 70 70 •  
www.tanatoriosirache.es

**Atabal**  
okindogia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

**Etxez etxe  
banatuko dugu**

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
SALMENTA ETA KONPONTZEA

**634 551 743**  
infoaralar@gmail.com

Errotaldea 19,  
Lekunberri

**MARTILLO TXIKI**  
PERKUSIO ESKOLA

www.martillotxiki.com  
679 938 016



Lekunberrik urte asko daramatza iraunkortasunaren alde lanean bere ardatz guztietan proiektu eta garapen aitzindariekin. Horregatik, hasiera-hasieratik bat egin dugu komunitate energetikoaren proiektu honekin. Eta, nafar gisa harro sentitu behar dugu formula honetan aintzindari izan garelako.

Proiektu berri hau digeritzeko ia astirik gabe, baina gure udalerriko garapenaren ezaugarriak kontuan hartuz, eta Lekunberri ON Plan Estrategikoaren markoan, industria eremuan antzeko proiektua garatzeko aukera ikusi genuen. Enpresak erronka energetikoan murgiltzeaz gain, gaur egun haien lehiakortasunerako ezinbestekoa den helburu berean batzea litzateke. Horrek, langileen ongizatea, baita Lekunberriko bizilagunen ongizatea eta inguruko udalerrien ongizatea suposatuko luke. Beraz, eta industrialde jasangarriago baten garapenean ere pentsatuz, gure udal taldeak, Lekunberriko Taldeak, Geroa Bai-ko talde parlamentarioari 145.000 €-ko partida bat sarrezala eskatu zion 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren zuzenketa gisa, zeina berriki onartua izan den parlamentuan egindako eztabaidaren ondoren. Zuzenketa horren barruan Lekunberri ON programaren laguntza teknikoa sartzen da (non, azken urte honetan hainbat izan diren sortu diren ekintza bateratu eta interesgarriak enpresa eta langileentzat) eta Lekunberriko Albisualdea Industrialdea poligono jasangarri baterantz garatzea, besteak beste, industria-komunitate energetiko bat sortzeko.

Zalantzarik gabe, komunitate hori Lekunberri ON programarekin sortzen ari zen, eta horri esker, eragile sozioekonomikoen arteko topagune eta eztabaida-foro etengabea sortu da, eta parte hartzen duen komunitate osoaren ideiak eta kezkek

bateratu dira. Baina, jakina, industria-komunitate energetikoa aurrerapauso handia da ekintza-batasunean, eta etorkizunerako proiektu komunitario gehiagorenganako ernamuin garrantzitsua.

Garapenerako, onura kolektiborako eta komunitate onurarako aukerak hautemateko ikuspegi orokor batek, berezitasunaren edo partikularren gainetik egon behar du. Batasunetik, kolektibotasunetik ere partikularra dena lortzen baita. Izan ere, erromatar enperadore eta estoizismoaren erreferente zen Marko Aureliok esan zuenez, "erlauntzarentzat ona dena erlearentzat ere ona da".

**Gorka Azpiroz**  
Lekunberriko alkatea

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



**BERTAKO HARAGIA**  
*Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.*

Antigua kalea 7  
31890 BETELU

948 51 30 88    maiteharategia@hotmail.com

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**



696 658 288  
**LEKUNBERRI**



**German Lasarte**  
**HARATEGIA**  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

**AURRERA**  
**TABERNA**  
**ARALAR, 15**  
**948 60 47 24**

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

## MATRIKULATZEA

1975eko azaroaren 20an, Francisco Franco Bahamonde Ferroleko diktadore ankerra hil zenean, ni batxilergo seigarren mailan nengoen; goiz hura oso ongi iltzatuta daukat gogoan. Hurrengo urtean, UBI Unibertsitatera Bideratutako Ikasturtea ikasten hasi eta 1977ko ekainean bukatu nuen. Orduan maisu ikasketak egin behar nituela erabaki nuen. Horretarako, bada, matrikulazioaren garaia iritsi zenean, egun batean, Etxarri Larraundik abiatu eta Iruñera joan nintzen, aipatutako matrikula egitera.

Oso-oso ongi gogoratzen ez baldin badut ere, uste dut bakarrik joan nintzela Irakasle Eskolara, hau da, San Jose plazara, eta, bueno, kontua da, behin eraikinaren barruan eta zegokidan leihatilaren aurrean nintzenean, han lanean ari zen pertsonari, azaldu nion irakasle-ikasketak egiteko matrikulatzea joan nintzela.

Une honetara iritsita, begitantzen zait komeni dela gogoraraztea, ni, garai hartan, oraindik oinez ibiltzen nintzela, baina, hori bai, eskuin eskuan, nik diseinatutako metalezko makila luze eta tolesgarri bat eraman ohi nuen, eta, ezkerrean, zurezko bastoi arrunt batekin.

Hura ikusita, hara zein izan zen hango pertsonaren erantzuna:

-Ai!, gogotik sentitzen diat, e?, mutil, baina hik ezin duk matrikularik egin! Horrela ez!

-Nola, horrela ez? Zer daukat nik, ba, berezirik? -nire erantzun harritua.

-Bai, begira, kontua zera duk, hi bastoi eta makila horiekin ibilita, egunen batean maisu egiten baldin bahaiz, ezinen duk gorputz heziketarik eman, behar den bezala, eta horixe duk, hain zuzen ere, matrikularik ezin egiteko arrazoi nagusia -argudiatu zidan hango pertsonak aida batean eta oso txukun.

Hura entzunda, zur eta lur gelditu nintzen; jokoz kanpo bezala utzi ninduen. Ez nuen garaiz erreakzionatzeko ahalmenik izan eta nire egoera psikologikoa jota gelditu zen. Gauzak horrela, eta, ezinbestean, nire erabakia osaba-izeba batzuen etxera joatea izan zen, bazkaltzera, eta, bide batez, nire atsekabe latz hura kontatzera, lasaitasun pixka bat hartzeko nire barruan.

Izeba eta osabaren etxera iritsi eta nire zoritxarreko gertaera kontatu nienean, zeharo harritu eta sumindu egin ziren, batez ere, Josetxo lehengusua; hark, ordurako, arkitektura karrera bukatua zeukan eta ni baino jakitunago zegoen gai haietan; beraz, sututa eta biziki haserreturik, zera esan zidan:

-Baina, zer? Nola liteke halakorik? Nola esan ahal izan diate ezin duala matrikularik egin? Edozein pertsonak zeukak eskubidea egiteko nahi duen matrikula, baldintza guztiak betetzen baldin baditu, eta, herorrek betetzen dituk. Gero, beste kontu bat duk, karrera bukatu ondoren, lanbide horretan aritu nahi duan ala ez, baina hori beste gai bat duk, eta, hortaz, hik erabateko eskubidea daukak matrikula hori egiteko; gorputz heziketako irakasgaian, azterketa teorikoak egin ahalko dituk, eta, praktikoetan, eszedentzia, eskatu eta kito! Bihar, biok joanen gaituk zorioneko matrikula hori egitera! -argudiatu eta bukatu zuen lehengusuak.

Horrenbestez, bada, biharamunean, esan bezala, berriz ere joan nintzen irakasle eskolara matrikulatzea, baina, aldi hartan, Josetxo lehengusuak lagunduta. Leihatilara iritsi eta bezperako pertsona harriturik gelditu zen ni berriro hantxe ikusita.

-Atzo ere esan nian, ba, ezin duala matrikularik egin, hire egoera fisikoa dela-eta! -hasi zitzaidan arrosarioa errezatzen, asperdura aurpegi triste batekin, baina aurrerago jarraitu baino lehen, berehalaxe hartu zuen hitza Josetxok, eta, bezperan, etxean esandako argudio eta arrazoibide guztiak jaurti zizkion aurpegiara aida batean.

-Eta gero, ikasketak bukatu ondoren, Xantik berak erabakiko du, bizibide horretan aritu nahi eta ahal duen lanean ala ez, baina matrikula egin eta ikasketak aurrera eramaten saiatzeko eskubidea ezin dio inork ukatu! -irmotasunez eta guztizko konbentzimendurekin amaitu zuen bere hitzaldia lehengusuak.

Argumentu haiek guztiak entzunda, leihatilako langilea ez zen ausartu gehiago aurka egitera, alderantziz, isildu eta segituen egin zidan egin beharreko matrikulazio ospetsu hura, behar zen moduan eta eran; garaipen txiki bat izan zen inolako zalantzarik gabe. Baina, nola uler litezke halako gorabehera tamalgarri eta negargarriak, maila handiko eraikin hartan, alegia, irakasle eskolan? Uste dut, azalpen xume bezain argigarri bat dagoela mordoilo horretan guztian, besterik gabe, eta, zera da, ezin dugu ahaztu bi urte eskas lehenago, Francisco Franco Bahamonde diktadore eta faxista, handi, anker eta bihozgabea oraindik bizirik zegoela. Jainko maitea!, a zer-nolako egoerak!

**Xanti Begiristain Madotz.**

Auritz. 2021-03-15.





Kutxa honen edukiak  
bizitza aldatuko dizu

**Irisgarritasuna denon eskura!**

Nafarroako Gobernuak hainbat gailu erosteko dirulaguntzak emango ditu adineko, ezindu edo mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat. Autonomia eta zaintza pertsonalerako, segurtasunerako eta partaidetza eta gizarteratze sozial eta komunitariorako produktuak.

**AUTONOMIA ETA ZAINNTZA PERTSONALA  
BULTZATZEKO LAGUNTZA PRODUKTUAK**



Informa zaitez

[laguntzaproductuak.nafarroa.eus](https://laguntzaproductuak.nafarroa.eus)

848 42 69 00



# “Niretzat opari bat da boluntariotzan aritu ahal izatea”

*Asun Olaetxea beteluarra Lesbosko errefuxiatuen kanpamentuan izan da, Grezian. Zaporeak elkarteko kideekin joan da hara, eta egunero 1.400 errefuxiaturentzako janaria kozinatzen zuten. Penaz itzuli da, baina baita maitasunez gainezka ere, eta argi dauka luze gabe itzuliko dela.*

## **Eguberrien atarian joan zinen Lesbosera. Noiz, zehazki?**

Abenduaren 21ean joan nintzen, eta urtarrilaren 3an itzuli. Normalean, hiru asterako joaten dira boluntarioak Zaporeak elkartearekin Lesbosera, baina nik lehenago itzuli behar nuen, lan kontuengatik. Lagun bat aurretik izana zen, eta horregatik ezagutzen nuen proiektua. Elkarteko lau boluntario eta bostok joan ginen.

## **Kozinatzen aritzen zineten, besteak beste. Nola antolatzen zineten?**

Sukaldean egiten genuen lan. Elkartearen bidez joan ohi diren lau boluntarioez gain, bost errefuxiatuk ere egiten dute lan sukaldean, beti berberak. Zaporeak-ek bi furgoneta

ditu, eta horiekin banatzen genuen janaria. Goizeko zortzitan hasten genuen eguna: lehenengo, gurekin batera lan egiten zuten errefuxituak hartzen genituen; bi etxebizitza batean bizi ziren, bat gure etxe berean, eta besteak errefuxiatuen kanpamentuan. Haiek jasotzean, sukaldera joaten ginen, 8:30 inguruan. Alokaturako etxebizitza batean zegoen sukaldea, garaje moduko batean. Sukaldaria errefuxiatu bat da, eta guk patatak zuritzen genituen, barazkiak garbitu, fruta prestatu, kontatu... egunero 1.400 errazio egiten genituen, gutxi gorabehera, eta 1.400 ogi. Izan ere, okindegi bat ere badago, eta pita esaten dioten ogia egiten dute egunero, ogi borobil bat. Janaria prestatzean, tuper txiki batzuetan jartzen genuen; itxi, kaxetan sartu, eta banatzera joaten ginen. Batzuk banatzera joaten ziren bitartean, gainerakoak sukaldea garbitzen gelditzen ginen. Lan handia zen dena garbitzea, kazola oso handiak erabiltzen baikenituen. 15:30 edo 16:30erako bukatzen genuen lana, eta arratsaldea libre izaten genuen.

*“Plater bero bat, fruta pieza bat eta ogi bat banatzen genien egunero”*

## **Zer janari banatzen zenuten?**

Egunero zerbait beroa banatzen genien: pasta, arroza barazkiekin, dilistak, garbantzuak... Horrez gain, fruta pieza bat, sagarra edota mandarina, eta ogi bat. Eguberrietan, adibidez, arroza







Zaporeak elkarteko kideak janaria banatzen. Arg: Zaporeak

axuriarekin prestatu genuen. Gainera, janari guztia Lesbosen bertan erosten dute Zaporeak-ekoek, tokiko merkatuetan eta dendetan.

### **Nola sentitu zinen kanpamentua lehen aldiz ikusi zenuenean?**

Harrituta geratu nintzen. Oso handia da, herri txiki bat ematen du. 2.000 errefuxiatu inguru daude gu izandako hartan, eta kabina zuri moduko batzuetan bizi dira. Ume asko daude, eta bizikleta bat dute gehienek! Beste erakunde batzuek emanda, agian.

*“Gehienak Turkiara joaten dira aurrena, eta handik pateran joaten dira Lesbosera, oso baldintza gogorretan”*

### **Gehienak emakumeak, umeak edo gizonak dira?**

Denetatik. Ezkongabeen zona esaten dioten zona bat dago kanpamentuan bertan, eta gizonezko ezkongabeak daude hor. Emakumezkoak seme-alabekin joaten badira, familiarizat hartzen dituzte, eta horiengandik aparte jartzen dituzte. Seme batek 18 urte betetzen dituenean, ezkongabe bihurtzen da, eta beste zona horretara joan behar du. Esaten dutenez, ezkongabeen zonako baldintzak gogorragoak dira: argia lau orduz baino ez dute izaten, esnea ez zaie ematen... Gainerakoei ere ez zaie egunero banatzen esnea, astean hiru aldiz baino ez.

### **Nondik etorriak dira errefuxiatuak?**

Herrialde askotatik. Lehen siriarrak izaten ziren gehienbat, baina orain Afganistandik, Irlandik, Afrikatik, India ingurutik... etorritakoak daude. Errefuxiatu gehienak Turkiara joaten dira aurrena, eta gero Turkiatik pateran joaten dira Lesbosera, oso baldintza gogorretan. Lesbos oso gertu dago Turkiatik, 20 kilometrora. Egunero iristen dira errefuxiatuak Lesbosera. Paperak lortzea da denen helburua, legal bihurtzea, eta paperak lortzean handik alde egitea.

### **Zer behar dute paperak lortzeko? Lana?**

Ez dakit. Errefuxiatu batzuek Zaporeak elkartearekin lan egiten dute, baina beste batzuk Lesbosko tabernetan-eta aritzen dira. Dirua behintzat badaukate gauzak ordaintzeko. Dirua izanez gero, errazago lortuko dituzu paperak, hori esaten dute haiek behintzat.

### **Nora joan nahi dute?**

Batzuek Alemaniara joan nahi dute, gauza asko egin baitituzte han errefuxiatuentzat; besteak beste, miloi bat siriarrak hartu dituzte. Sukaldean gurekin aritzen zirenek esaten ziguten Euskal Herrira etorri nahi zutela! Eta beste sukaldari bat, adibidez, Irlandik etorri zen, orain dela zazpi urte, eta bidean mendian bakar-bakarrik egon zen urtebetez, kartzelan ere bai... Horrek ere esaten du hona etorriko dela paperak lortzean.

*“Paperak lortzea da denen helburua, legal bihurtzea, eta gero handik alde egitea”*

### **Ordu asko eman dituzue boluntarioek elkarrekin. Ongi moldatu zarete?**

Oso ongi. Eguberriak beste modu batean bizitzera joan nintzen Lesbosera. Boluntarioak ere ez nituen lehenagotik ezagutzen, baina gure artean oso ongi moldatu gara, oso giro ona izan dugu.

### **Nolakoa da Lesbosko herritarren eta errefuxiatuen arteko harremana?**

Nik uste nahiko ohituta daudela. Errefuxiatu dezente ikusten dira kanpamentutik kanpo, gazteak batez ere. Ateratzeko baimena dute, baina esaten dute oso berandu itzultzen badira arazoak izaten dituztela poliziek. Dena den, beste asko ez dira kanpamentutik atera ere egiten. Askok emakumeak dira, umeak dituzte... Hirigunera, gainera, 4 kilometro-edo daude kanpamentutik, eta denek ez dute itzultzeko modurik izango. Kanpamentuan sartzeko karneta eskatzen dute egunero, baita guri ere, eta egun batean ez ziguten utzi sartzeko.





Asunekin batera joan ziren boluntarioak. Arg: Asun Olaetxea

### Zergatik?

Esan ziguten ezin ginela sartu, azalpenik eman gabe. Janaria banatzera gindoazen furgonetetan, sukaldeko errefuxiatuekin batera, eta azkenean barruko errefuxiatuek banatu behar izan zuten. Hurrengo egunean joan behar izan genuen kaxak hartzera.

*“Poliziak eta segurtasuneko langileak daude, kanpoan nahiz barruan. Argazkirik ere ezin da atera”*

### Polizia egoten da sarreran?

Poliziak eta segurtasuneko langileak daude, kanpoan nahiz barruan. Argazkirik ere ezin da atera barruan. Esan ziguten kanpamentuko zuzendaria aldatu dutela, eta orain pixka bat hobeto zeudela. Abuztuan eman zuten kanpokoek kanpamentura sartzeko baimena; lehen, errefuxiatuek atera egin behar izaten zuten janaria hartzera. Orain, gu sartzen gara hori egitera.

### Zer behar da Zaporeak elkartearen bidez Lesbosera joateko?

Gogoa, besterik ez! Ez da ezer ordaindu behar. Nik esan nien ez nekiela kozinatzen, eta ez zen arazorik izan. Beti pertsona berak kozinatzen du, hango errefuxiatu batek, baina bestela ere lan handia dago. Eta oso pozik bueltatzen zara handik, baina baita penaz ere.



Barazkiak txikitzen eta patatak zuritzen aritzen ziren, besteak beste. Arg: Asun Olaetxea

### Aurretik imajinatuko al zenuke horrelako esperientzia batean parte hartzea?

Ez. Halere, ni beti ibili izan naiz horrelako gauzetan. Adibidez, Anfas elkartean ibili naiz 15 urtez, adimen urritasuna dutenei laguntzen, larunbatetan. Asteburu pasa ere joaten nintzen haiekin urtean lau aldiz, eta gero oporretara... Zuk ematen duzuna baino askoz gehiago ematen dizute haiek.

Gainera, oso ongi pasatzen dut! Eta errefuxiatuekin gauza bera. Horrelako esperientziek asko ematen dizute, eta nik oso ongi ikusten dut neure burua horrelako gauzetan. Eguberrietan han nintzela, zera esaten nion neure buruari: “Ze ongi nagoen hemen, patatak zuritzen!”. Beste edozeinek ez luke hori nahiko, baina...



Sukaldean baratxuriak zuritzen. Arg: Asun Olaetxea





Lesbosko kanpamentua. Arg: Zaporeak

**Zure ogibidearekin alderatuta, alde handia dago lan motari dagokionez. Mugarri bat ezarri zenuen: Nafarroako Gobernu Kontuen Ganberako lehenengo emakumezko presidentea izan zara. 2016an izendatu zintuzten presidente. Noiz arte jardun duzu postu horretan?**

lazko apirilera arte. Oso esperientzia ona eta gogorra izan zen aldi berean. Kanpoan nahiz barruan izan ditugu arazoak. Parlamentuan, bi txostenekin gehienbat, eta gaur egun politikarien artean dagoen giro txarrarekin, oso gogorra izan zen. Barrura begira, berriz, langileen kudeaketa oso zaila da; nik uste hori iruditu zaidala zailena. Baina ohore bat izan da presidentea izatea, Kontuen Ganbera erakunde oso

***"Kontuen Ganberako presidente izatea ona eta gogorra izan zen aldi berean"***

beharrezkoa baita Nafarroan, funts publikoak ongi erabiltzen direla ziurtatzen baitugu.

**Eta orain zertan zabilta?**

Auditorea naiz, nire aurreko lanpostuan nabil, eta oso gustura, oso lasai. Gure zeregina da, hasteko, eskatzen dituzten programak planifikatzea, eta teknikariekin osatutako talde bat dugu hori guztia zuzentzeko. Ondoren, txostenak egiten ditugu, eta asko gustatzen zait lan tekniko hori. Presidentea nintzenez ez nituen txostenak egiten, baizik eta beste auditoreek egiten zituztenak irakurri eta zuzendu, eta ordezkari gisara ere

joan behar izaten nuen ekitaldietara; hori ez zitzaidan hainbeste gustatzen.

**Nabari da asko gustatzen zaizula zure lana.**

Bai, asko. Erakunde publikoen kontuak aztertzen ditugu, eta gero ziurtatzen dugu legea betetzen dutela. Baina, horrez gain, orain hasi gara proiektuen eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia ikertzen, hau da, dirua ongi erabili ote den eta helburuak bete ote diren.

**Nola ikusten duzu zeure burua aurrerantzean?**

Nire oraingo lanean jarraituko dut, asko gustatzen zaidalako. Anfasekoa utzi egin nuen, baina horrelako gehiago egingo ditut. Niretzat opari bat da boluntariotzan aritu ahal izatea, oso ongi sentitzen naiz.



**Lagunasesoría S.L.**

**Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...**


k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · [aitziberalf@hotmail.com](mailto:aitziberalf@hotmail.com)





### ▶ MIN KRONIKOARI BURUZKO PROIEKZIOA ETA SOLASALDIA BETELUKO ZIGARIN, OTSAILAREN 25EAN

Otsailaren 25ean *El dolor se aprende (y se puede desaprender)* izeneko dokumentala emanen dute Zigari elkarteak, Betelun, 18:00etan. Ondoren, solasaldi bat ere izanen da bi familia medikurekin, fisioterapeuta batekin eta migraina duen paziente batekin. Min kronikoa duten pazienteengan taldeko eta banakako esku hartzeen hainbat esperientzia kontatzen dira lan horretan. Interbentzioen oinarria minaren paradigma aldaketa da, erdian neuroimmune sistema eta minaren neurozientziako hezkuntza jarritz paziente horiei aurre egiteko tresna nagusi gisa. Kalekofilmsek egin du dokumentala, Osatzen eta Goigroup taldeen laguntzaz.



### ▶ ESPAINIAKO VUELTAKO ETAPA BAT LEKUNBERRIN AMAITUKO DA BERRIRO ERE

2023ko Espainiako Vueltaren ibilbidea ofizial egin zuten joan den hilean, eta, azaldu zutenaz, Lekunberri izanen da berriro ere txirrindularitza lasterka horretako etapa bateko azken helmuga. Hain zuzen ere, irailaren 10ean ailegatuko dira kirolariak Lekunberrira, Iruñetik abiatu eta gero, desafioaren 15. etapan. Duela bi urte, ikuskizun ederra izan zen Aralarren, baina aurten ez dira mendate horretatik ailegatuko Lekunberrira, Madozko igoera etzanetik baizik. Abuztuaren 26an hasiko da lasterketa, Bartzelonan, eta irailaren 17an helduko da tropela Madrilerara.

### JONATAN GARCIA ALPINISTA GABARIN

Ttutture Kirol Elkarreak antolatuta, Jonatan Garcia alpinista bizkaitarra Gabarin izanen da otsailaren 4an, 19:00etan. Aneto-Maladeta proiektuaren irudiak eta horren ezaugarriak erakutsiko ditu. Garcia Benasquen bizi da orain dela lau urtetik, eta, Himalaian gora egin ondoren, "zortzi milako ibilbide komertzialetik" urruntzen da, eta Pirinioetan agertoki eta erronka berriak bilatzen ditu. Benasque ibarra inguratzen duten mendietan hazi egin da jarduera ordutik, bai kalitatean, bai zailtasunean, bai kantitatean.







### ▶ ZEHATZU DIRA EUSKAL HERRIKO XVI. MUS TXAPELKETAN IBARRA ORDEZKATUKO DUTEN AURRENEKO BIKOTEAK

Kanporaketekin hasi dira jada Euskal Herriko XVI. Mus Txapelketan, eta Betelun eta Lekunberrin egin dituzte aurreneko kanporaketak: Betelun ilbeltzaren 27an jokatu zen, lau bikote aritu ziren, eta Garikoitz Huici eta Maria Engracia Goikoetxea uztegiarrak pasatu ziren Iruñeko finalera. Lekunberrin, berriz, Euskalduna tabernan elkartu ziren muszaleak ilbeltzaren 20an; hamar bikote aurkeztu ziren, eta bi sailkatu Asier Lansalot eta Asier Albiasu, eta Oier Astiz eta Iosu Begiristain. Halere, baliteke beste kanporaketa bat egitea, lau bikote behar baitira gutxienez. Herrialdeetako finalak martxoaren 11n izanen dira, Iruñean, eta final nazionala, berriz, martxoaren 25ean, Zornotzan.



### ▶ TEKNOLOGIA, ELIKADURA ETA HEZIKETA HIZPIDE IBARBERRIKO GURASOEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO HITZALDIETAN

Ibarberriko Gurasoen Elkarteak, Eskualdeko Gizarte Zerbitzu Mankomunitatearen laguntzarekin, hainbat hitzaldi antolatu ditu heldu diren hilabeteetarako. Aurrenekoa teknologia berrien erabilera egokiari buruzkoa izango da, otsailaren 15ean, eskolan bertan, 16:30etik 18:00etara. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan eta DBH 1. mailan seme-alabak dituztenentzako izanen da. Martxoaren 16an, berriz, Laura Sorettek elikadura osasuntsua izango du mintzagai; ordu eta leku berean izanen da. Eta apirilaren 24an zigorrei, xantaiei eta autonomiari buruz hitz egingen du Camino Mateok.

### "CROWFUNDING" KANPAINA BAT ABIATU DUTE ARALARREN IRAUPEN ESKIA BULTZATZEKO ETA SUSTATZEKO

Duelta urte gutxi, eskizale batzuek elurretan bidea markatzeko makina bat erosi zuten, hala, iraupen eskia egin ahal izateko arrasto horri segika Aralarren. Orain, egitasmo bat abiatu dute makina horren erabilera bultzatzeko eta iraupen eskiaz gozatu ahal izateko. *Crowdfunding* bat egin dute, eta urtean 20 euroko laguntza eman ahal izango da. Informazio gehiago nahi baduzu edo egitasmoan parte hartu nahi baduzu, jarri harremanetan 662 21 12 51 zenbakiaren bidez.



# Sagardoa, txotxetik

*Abian da aurtengo sagardo garaia, eta, azkenean, txotx egin ahal izanen da upeletatik. Herritarrek gogotsu daude, sagardogileak zer esanik ez, eta, hala, ibarreko sagardotegietako jabeek hilabete oparoak espero dituzte. Maiatzera bitarte egonen dira irekita aurtan sagardotegiak. Iazkoa baino uzta eskasagoa izan da aurtengoa, eta sagardoak graduazio altuagoa du.*

Pandemia aurretik normala zena aurtengo sagardo garaia berezitasun bilakatu da: txotx egin ahal izango da sagardotegietan, zutik, upeltegietan bertan. Sagardogileek ireki dituzte dagoeneko upelak eta sagardotegietako atekak, eta sagardozaleak gustura eseri dira egurrezko mahai luzeen bueltan, giro gozoan eta, "txotx!" oihuak altxatuta, hasi dira upeletara joan-etorriak egiten. Ibarreko sagardotegiak ere

martxan daude dagoeneko, eta maiatzera bitarte emango dute zerbitzua. Aurtengo uzta iazkoa baino eskasagoa izan dela esan dute, baita graduazio altuagoa duela ere. Neurri murriztailerik gabe, herritarrek gogotsu hasi dira aurreneko zurrutak egiten.

Idoia Igoak eta Inaxio Begiristainek ia beteta daukate agenda apirilera bitarte, larunbat eguerdietarako

bederen. Oderizko Juanluzenea sagardotegiko jabea da aurrenekoa, eta Aldazko Martitxonea sagardotegiko bigarrena. Ogibidea ez da lotzen dituen gauza bakarra: lagunak ere badira, txikitatik ezagutzen dute elkar, biak hazi baitira Aldatzen. Begiristain hernaniarra da izatez, baina gurasoak Aldazkoak zituen. Beste gauza bat ere badute komun: familiaren etxeko ukuilua sagardotegi bihurtzea erabaki zuten. Igoak orain dela 20 urte erreformatu zuen Juanluzenea izeneko etxearen beheko aldea bere negozioa irekitzeko, senarrarekin batera, eta han egiten du lan ordutik. Aurretik ere ostalaritzan ibilitakoak ziren biak ala biak, eta eskarmentua bazuten, beraz. Begiristainek, berriz, lehentxeago jarri zuen bere proiektua martxan, orain dela 28 urte. arrain saltzaile aritu zen, besteak beste, amaren jaiotetxea berritzen hasterako, eta Berueteko Txasenek Borda sagardotegiko Angel sagardoa egiten hasi zenean, ez zuen bi aldiz pentsatu: sagardoaren kultura ibarrera ekarri nahi zuen, sagardoaren mundua ezagutu, ahalik eta gehien ikasi, eta bizimodu hori hartu akuilutzat. Pentsatu eta egin.

Kontu onetan ez ezik, txarretan ere bat datoz Igoa eta Begiristain: pandemia garaian ezarritako neurrien ondorioz, azken urteotan ohi baino jende gutxiago joan zaie sagardotegietara, giroa itzalita egon da nabarmen, eta, Igoak esan bezala, "bizirik irautea" tokatu zaie. Baina atzean utzi dituzte denboraldi ilunak, eta heldu diren hilabetei distira ateratzeko irrikaz daude.





### Gazitik eta gozotik

Etxarrirako bidean ditu sagastiak Begiristainek, eta Normandiatik, Frantziatik, ekarritako arbolak ditu han. Azaldu du Frantzia dela sagar ekoizlerik handiena Europan, eta sagasti horretako uztarekin egindako sagardoa hemengoarekin egindakoa baino horixkagoa dela, "lasto kolorekoa", eta, zapoz, mikatzagoa. Halere, tokiko sagarrarekin egindakoa ere badu; hain zuzen, Igoaren anaiaren sagasti batetik hartu ditu sagarrak aurten, eta upel bat sagardo horrekin bete du. "Diferentea" da sagardo hori, kolore berdeagoa du, "gazi gehiago eta goxo pixka bat". 15.000 litro ingururekin nahikoa izaten du denboraldi osoarako, bai sagardotegirako, bai ondoren botiletan saltzeko. Urte "on" batean 25.000-30.000 litro egiten ditu, eta, badakienez uzta on baten ondoren uzta eskasagoa heldu dela, bodega topera betetzen du ahal duenean. Orain, "denetatik" dago Martitxonean dastagai; sagardo berria goian, upela bat tokiko sagarrarekin betea, eta beste batzuk iazko eta aurtengoa nahastuta.

Juanluzenekoek kanpotik ekartzen dute sagardoa, ez baitute leku nahikorik bertan egiteko, eta, Igoak nabarmendu duenez, otorduari izugarriko garrantzia ematen diote, bezeroei ematen dieten generoari. Etxeko guztien lanari esker lortzen dute sagardotegira joaten direnak goxatzea: Igoa bera sukaldean aritzen da, bakailoa eta tortillak prestatzen; senarra, parrillan, txuletak egiten;



Sagardozaileak Juanluzenean. Arg.: Idoia Igoa

eta seme-alabak zerbitzatzen aritzen dira. Orain, gainera, eskaintza berezi bat jarri dute: ostiral eta larunbat gauetan aukerako menu bat eskainiko dute, txuleta beharrez txekor saiheskia, eta, hala, prezioa baxuagoa izango da, 28 eurokoa.

Hori baita gaur egun sagardotegien erronketako bat: gauean zerbitzu gehiago ematea. Aldatzen nahiz Oderitzen eguerditarako dituzte erreserba gehienak eginda, larunbatetarako batik bat, eta gauean lan gehiago egitea gustatuko litzaieke. Uste dute ohitura aldaketa bat izan dela, orain dela hogeit hamar urte inguru jende gehiago joaten baitzen sagardotegietara afaltzera. Gainera, inguruko herritarrek ez ezik, Iruñe aldetik, Sakanatik nahiz Espainiatik etorritakoak —landetxeetan eta daudenak— joaten zaizkie sagardotegira, eta horrek zerikusia izan dezakeela uste dute.

Maiatzean, sagardotegietako atekak ixtean, sagardoa botiletan sartzen hasiko dira, eta horren ondoren ere lana ez zaie faltako: sagastietako belarra moztu, upelak garbitu, sagarrak bildu, sagardoa egin, sagardotegia txukundu... eta berriz prozesua martxan.

Lanean eman dituzte azken hilabeteak sagardogileek, eta, orain, ereindakoa jasotzea besterik ez zaie falta. Beraz, txotx eta topa sagardo garai oparo baten alde!



Maritxonea. Arg.: Labrit

**Martitxonea**  
sagardotegia  
Inaxio Begiristain



Aldatz  
Nafarroa

948604607

**Txooootx!**

**JUANLUZENEAN**  
**SAGARDOTEGIA**

**MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik**



948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

# “Lehen baserritarrentzat lan neketsua zena festa bihurtu dugu”

*Intzako Perunea landetxearen jabeak dira Nere Iriarte eta Bittor Salvatierra. Nereren aitak orain dela 45 urte inguru landatutako sagarrondoak dituzte etxean, eta sagardoa egiten dute, autokontsumorako. Sagardoa edatea baino gehiago, estimatzen dituzten pertsonekin konpartitzea dute gustuko.*

**Nolatan dituzue sagastiak etxean?****Nere:** Aitak kontaktu dit orain dela 45 urte inguru jarri zituela lehenengo sagarrondoak; aitona-amonak hasi ziren landatzen, eta berak jarraitu egin zuen. Aitak sagardotegietara joateko ohitura handia zuen, Oiarbide sagardotegira batez ere, Astigarragara, oso sagardozeala baita, eta hango

jabearekin harreman ona zuenez, Oiarbidera joaten zen bakoitzean zuhaitz batzuekin bueltatzen zen etxera. Hala joan zen sagarrondoak landatuz, eta bere ilusioa zen noizbait sagardoa egitea horien fruituarekin.

**Eta egin zuen sagardoa azkenean?****Nere:** Ez. Azkenean guk egin genuen aurrenekoz, baina orain dela gutxi, duela lau urte edo.

**Zerk animatu zintuzten?****Bittor:** Lehen, sagardotegietara eramaten genituen sagarrak, saldu egiten genituen, baina egun batean erabaki genuen guk geuk egitea, eta hala animatu ginen. Uztegiko Santik irakatsi zigun nola egin; guk sagarrak eman genizkion, eta hark, trukean,

beharrezko tresnak eta materiala utzi zizkigun. Geroago, depositu bat eta dolare bat erosi genituen; dolarea Intzako beste bizilagun batekin erdibana erosi genuen.

## **Sagarrondo asko dituzue, beraz?**

**Nere:** Aldi bakoitzean 350 litro inguru egiten ditugu, ia 500 botila. Arbolak nahiko zaharrak dira, eta asko ematen dute. Batzuk erortzen ere hasi dira...

**Bittor:** Azkenaldian lau edo bost erori dira, haizeteen ondorioz.**Nere:** Sustraiak oso azalean dituzte, eta hemen aldapa handia dago. Pisu handia dutenez, ez dute eusteko adina indarrik, zaharrak direlako, eta erori egiten dira.

## **Autokontsumorako egin izan duzue beti sagardoa? Edo saldu ere egin izan duzue?**

**Bittor:** Guk kontsumitzeko bakarrik egiten dugu, lagunei oparitzeko eta landetxera etortzen direnei ere emateko.

**Nere:** Lagunekin trukeak egiten ditugu. Gu ez gara oso sagardozealeak, nahiago dugu garagardoa edo ardo edan, baina bero handia egiten duenean gustura edaten dugu. Gainera, plan polita da: udazkeneko bi asteburutan lagunak gonbidatzen ditugu etxera. Lehenengo asteburuan, sagarrak jasotzen ditugu, eta, hurrengoan, sagardoa egiten dugu. Familia giroan etortzen dira, eta egun polita pasatzen dugu. Guk bakarrik egin beharko bagenu, lan handia litzateke, baina haiek gustura etortzen dira, eta gu are gusturago egoten gara. Lanean aritu eta gero, bazkari ederra egiten dugu, eta festa. Lehen baserritarrentzat lan handia zena festa bihurtu dugu.



Familian eta lagunekin sagarrak biltzen. Arg: Nere Iriarte



### **Nola egiten duzue prozesua?**

**ittor:** Lehenengo, zuhaitzak astintzen ditugu, zuhaitzera igota edo makila bat erabilia. Gero, lurretik jasotzen ditugu sagarrak. Hurrengo astean, sagarrak garbitu, txikitu eta prentsatu egiten ditugu, eta listo. Prozesua ez da zaila. Dentsitatea da pixka bat kontrolatu behar dena: hasieran zukuak 1040ko dentsitatea izaten du, gutxi gorabehera, eta 1000ra jaitsi behar du. Ordura arte, irekita utzi behar da depositua, eta gero, itxi. Hor hartzitu egiten da, bere kasa, eta gero probatzen hasi behar da, eta, ongi dagoenean, botiletan sartu.

**Nere:** Urteren batean zukuak ere egin izan dugu. Errazagoa da, baina pasteurizatu egin behar da. Urte batean Astigarragako makina bat alokatu genuen, eta oso goxoa ateratu zen. Neure kabuz egiten ere saiatu nintzen iaz, baina ez zen ongi ateratu.

### **Aurten egin duzue sagardoa?**

**Nere:** Ez, aurten ez dugu ez. Ez zegoen sagar askorik, eta guk ere ez genuen gogo handirik. Gainera, urte batean egiten badugu, nahikoa dugu hurrengo urterako.

### **Beraz, aurtengo uzta iazkoa baino kaskarragoa izan da?**

**Nere:** Bai. Nik uste dut idortearengatik izan dela batez ere. Hala ere, guk ez dugu alde handirik nabaritzen urte batetik bestera. Aitak zuhaitzak sartu zituen moduan dezente ematen dute beti. Ez dakit nola egin zuen.

**Bittor:** Barietate pila bat daude, gainera.

### **Sagarrondo mota desberdinak? Zein motatakoak?**

**Nere:** Sagarrak guztiak oso desberdinak dira. Horregatik, gure sagardoa sorpresa izaten da. Sagarrondo batzuk aldapan ditugu, eta beste batzuk zelaian, eta normalean zelaian daudenak hartzen ditugu, errazago biltzen baitira. Bizilagun batzuek eta guk zuku bera dugu, baina sagardoa desberdin ateratzen da. Errege sagar batzuk ere baditugu eta horietako batzuk sartzen ditugu, baina asko ez, askorekin ez baita sagardo ona ateratzen.

### **Sagasti bera, herri bera, eta sagardo desberdina...**

**Bittor:** Agian tenperaturagatik gertatzen da hori, hartzitzen den moduaren arabera, lekuaren arabera...

Beste sagardogile batzuk ere badaude Intzan.

**Nere:** Intzan hiruk egiten dugu sagardoa! Guk, Simonek eta Igonek (Antsonegoikoa etxeokak), eta Oxenea etxeokak ere bai. Guk nahi duguna da sagarrak alferrik ez galtzea eta ingurua txukun egotea.

**Bittor:** Gainera, guk egiten dugun sagardoa naturala eta ekologikoa da, ez diogu beste ezer gehitzen. Polita da hemen bertan sagardoa egitea.

**Nere:** Niri ilusioa egiten dit. Ez zait gustatzen gauzak galtzea, eta honi buelta eman genionean, ederra izan zen.

### **Zuek sartzen duzue gero botiletan?**

**Nere:** Bai, hori ere denen artean egiten dugu. Umeek ere asko hartzen dute parte, lagunak ekartzen dituzte... festa bat da. Baserri hauetan beti izan da lan handia eta neketsua, eta lan horiek arintzeak eta goxatzeak gustu handia ematen dit.

### **Oraindik geratzen al zaizkizue aurreko denboraldiko botilak? Ona ateratu al zen?**

**Bittor:** Nahiko dezentea, baina beste urte batzuetan ez zaigu ongi ateratu izan. Aurtengoa inoizko onena da. Lehenengo urtekoak zapora oso fuertea zuen, txarra. Ikasten ari gara, pixkanaka.

### **Zer esaten dute landetxera etortzen direnek?**

**Bittor:** Bezeroak harrizta geratzen dira aditzean etxeko sagardoa dela, naturala. Askok gustatzen zaie.

**Nere:** Aurten gauza zelebre bat gertatu zitzaigun Kaliforniatik etorritako batzuekin: sagardoa oparitu genien, eta izotzarekin eta sodarekin edaten zuten!

**Bittor:** Haien zat zaporea oso arraroa da, eta garrantza denez... Hemengo



jendea harrizta geratuko litzateke amerikar haiek sagardoa sodarekin edaten ikustean!

### **Beste produkturik egiten al duzue sagarrekin?**

**Nere:** Konpota ere egiten dugu, marmelada...

### **Eta zer egin behar da sagarrondoek hainbeste sagar eman dezaten?**

**Bittor:** Ez ditugu kimatzen, eta ez dugu ezer berezirik egiten, egia esan.

**Nere:** Nik Nekazari Ingeniaritza ikasi nuen, eta kimaketa ikasi nuenean pixka bat ireki nituen zuhaitzak, baina urte batean besterik ez. Niri ez zait kimatzea gustatzen. Kimatuz gero, lehenago ematen dituzte sagarrak, baina lehenago hiltzen dira. Eta, kimatu gabe, bizi luzeagoa izaten dute. Baina gu ez gara ekoizleak, eta zaintzea eta ingurua txukun izatea da inporta zaiguna.



# AURKEZTU ZURE HAURENTZAKO BILDUMA ETXEPARE SARIETARA MAIATZAREN 5A BAINO LEHEN!

## OINARRIAK

### bat

Haurrei zuzenduriko album ilustratuak aurkeztu ahal izanen dira sari honetara. Album ilustratu bezala ulertzen dira testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak.

### bi

Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabekak izanen dira. Ez da onartuko beste inondik moldatutako lanik, ezta aurretik saririk jaso duenik ere.

### hiru

Lehiaketan honela parte hartu daiteke: bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean. Egileek nahi beste lan aurkez ditzakete.

### lau

Formatua librea da, baina lanak ez dira 20 cm (zabalera) x 21cm (altuera) baino txikiagoak izanen, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte (babes-orriak, azala eta kontrazala kanpo). Testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne). Ez dira album mutuak onartuko, hitzik gabekoak alegia.

### bost

Sari hau azken lau deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira, nahiz eta arestian aipatutako baldintzak bete.

### sei

Lehiaketan parte hartzen dutenek albumaren maketa aurkeztu beharko dute. Lanak [www.etxeparesaria.eus](http://www.etxeparesaria.eus) webgunearen bitartez aurkeztuko dira, horretarako prestatutako formularioaren bidez. Aholkatzen da fitxategiek 20 mega baino gehiago ez izatea. Egileek nahi badute, irudi originalak bidal ditzakete posta arrunt bidez epaimahaikideek jatorrizko lana ikus dezaten.

### zazpi

Lanak izengoitiaz izenpeturik egongo dira.

### zortzi

Lanak posta arrunt bidez bidaliz gero, lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizena izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak: izen-abizenak, helbidea,

telefonoa, helbide elektronikoa, NANaren edota pasaportearen fotokopia eta egilearen aipamen bio-bibliografikoa. Lanak helbide honetara bidaliko dira: ETXEPARE SARIA, Leitzako Udaletxea, Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880 Leitza (Nafarroa).

### bederatzi

Obrak aurkezteko epea 2023ko maiatzaren 5ean, ostiralean, itxiko da. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna 2023ko ekainaren 29a izanen da.

### hamar

Epaimahaiak haur literaturan eta ilustrazioan adituak diren pertsonak osatuko dute, eta udal eta mankomunitate antolatzaileek izendatuko dute. Udal eta mankomunitate antolatzaileetako teknikari batek idazkari lanak egingen ditu (hitza izanen du, baina ez botorik). Pamielak izendatutako pertsonak egon daitezke epaimahaiak egiten dituen bilkuretan (hitza izanen dute, baina ez botorik). Ez da saririk emanen epaimahaiaren iritziz gutxieneko kalitateko lanik ez badago. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.

### hamaika

Sari bakarra emango da, 5.000 eurokoa. Zergen atxikipena indarrean dagoen legediari jarraiki egingen da.

### hamabi


Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du, eta argitalpenean Etxepare sariaren aipamena egingen da.

### hamahiru

Saria eman eta hilabeteko epean originalak itzuliko zaizkio eskatzen dituenari. Epe hori igarota, eskatzen ez diren lanak suntsitu egingo dira. Denbora tarte horretan argitaletxeren batek aurkeztutako lanak ikusi nahi baditu, baimena eskatu beharko zaio alde aurretik egileari.

### hamalau

Oinarri hauetan zehaztu gabeko zalantzaren bat agertzen bada, epaimahaiak argituko du eta, hark egiten ez badu, udal eta mankomunitate antolatzaileek erabakiko dute. Sari honetan parte hartzeak oinarri hauek ezagutzea eta onartzea dakar.



**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)

**NEKAZARI, S.L.**  
Kubota  
STIHL®  
ANTONIO CARRARO  
Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazaris@hotmail.com](mailto:nekazaris@hotmail.com)  




Uitzi

## Joseba Igartua eta Oier Ijurko izan dira aurtengo Uitziko ihoteetako maiordomoak

Ihoteak antolatzeko ohitura zaharrari eutsi diote aurten ere Uitzin; izan ere, pandemia aurretik hala zehaztuta, Joseba Igartua eta Oier Ijurko izan dira inauteriak antolatzeaz arduratu direnak, eta heldu den urteko maiordomoak ere badituzte dagoeneko: Kiko Orejak eta Ana Aromak hartu dute lekukoa. Horregatik, haiek antolatu beharko dituzte hurrengo ihoteak. Zozketaz egiten dute aukeraketa, igande arratsaldean, karten sorta bat erabilia: erregea tokatzen zaiona bihurtzen da maiordomo. Nafarroa osoan ospatzen diren aurreneko ihoteak dira Uitzikoak. Ilbeltzaren 14an egin zituzten, urteroko puska biltzarekin eta Merkualde elkartean egin zituzten otordu ederrekin.



## “Konpasioa”

Zortzi hilabete ondoren, beste norbait sentitzen naiz. Poliki nire barrua aldatu da. Ez nago uda hasieran nengoen tokian, aurrera egin dut. Ez dago dena sendatuta, hori prozesu luzea baita. Orain ez naiz gaixo sentitzen eta zauriak orbaintzen ari dira. Izan ere, norbaitekin sufritu ondoren haserrean gera naiteke, juizioan, mespretxuan edo, besterik ezean, erretxazoan. Biktimismoa eta harropuzkeria. Baina, horrela, ez dut aurrera egiten, pertsona horrekin lotuta segitzen dut eta ez diot nire barruari tokia uzten benetako harreman berriak izateko. Gainera, zauriak sendatu gabe harreman berririk hasiz gero, azalekoa izanen da, ez baitut barrua garbitu nahikoa. Aldiz, sufrimendua izan banuen norbaitekin eta iristen banaiz, batetik, nire ardura hartzera eta, bestetik, pertsona horrekiko “konpasioa” sentitzera iristen banaiz, nire barruan tokia eginen diot maitasunari. “Konpasioa” idatzi dut, ez errukia, azken hitz honek errua baitu bere sustraietan. Ez da erru kontua, ez da barkamen kontua, nire iritziz. Erruaren ordez, ardura. Barkamenaren ordez, onarpena.

Gaur horrela sentitzen naizela idaztera ausartzen naiz. Batetik, libre neu izateko, berarekiko lotu ninduketen emozio eta sentimendu negatibotatik dezente urrunduta. Bestetik, ulermena eta “konpasioa” sentitzen ari naiz nirekiko eta berarekiko.







## 125 korrikalari lehia Araitz-Beteluko XVI. Kroseko lasterketa nagusian

Azken bi urteotako geldialdiaren ostean, Araitz-Beteluko XVI. krosa egin zen ilbeltzaren 15ean. Gizonezkoetan, Andoaingo Javi Menta izan zen txapelduna, 00:25:06an egin baitzuen 7,7 kilometroko ibilbidea. Emakumezkoetan, berriz, Iruñeko Maria Ordoñez izan zen azkarrena, 00:29:09an iritsi baitzen helmugara. Eskualdeko sailkapenari dagokionez, berriz, Raul Amatriain izan zen helmugara iristen lehena, 26 minutuan, eta emakumezkoetan, Lorea Burguete lekunberriarra, 33 minutuan bukatu baitzuen lasterketa. Lasterketa nagusiaren aurretik, baina, haurren lasterketak egin ziren, eta 70 hurrek inguruk parte hartu zuten.





## Eskualdeko korrikalarien sailkapen nagusia

(7.700 metro)

IZEN-ABIZENA	HERRIA	DENBORA
<b>Raul Amatriain Arraiza</b>	Uitz	00:26:00
<b>Iñigo Lasarte Garcia</b>	Lekunberri	00:27:01
<b>Xabier Garcia Satrustegi</b>	Errazkin	00:28:01
<b>Ander Elizalde Zubillaga</b>	Betelu	00:29:34
<b>Joanes Rekalde Iraizoz</b>	Betelu	00:29:34
<b>Aitor Etxarri Igoa</b>	Oderitz	00:30:05
<b>Ibai Arratibel Ibañez</b>	Lekunberri	00:30:42
<b>Alfontso Etxarri Azpirotz</b>	Arruiz	00:31:03
<b>Eneko Rekalde Iraizoz</b>	Betelu	00:31:27
<b>Imanol Jaka Navarro</b>	Etxarri-Larraun	00:32:18
<b>Julen Saralegui Izaguirre</b>	Betelu	00:32:34
<b>Ander Mikeo Zinkunegi</b>	Arribe	00:32:53
<b>Manex Saralegui Izaguirre</b>	Betelu	00:32:57
<b>Cian Aranburu O'Reilly</b>	Betelu	00:32:57
<b>Oihan Igoa Gastesi</b>	Aldatz	00:32:59
<b>Lorea Burguete Mikeo</b>	Lekunberri	00:33:00
<b>Izar Amundarain Orbegozo</b>	Arribe	00:33:22
<b>Ander Arraztio Saralegi</b>	Betelu	00:33:31
<b>Imanol Estanga Arrizubieta</b>	Lekunberri	00:34:14
<b>Aileen Aranburu O'Reilly</b>	Betelu	00:34:28
<b>Julen Lopez Cobos</b>	Lekunberri	00:36:24
<b>Julen Sotil Mikeo</b>	Betelu	00:36:52
<b>Andoni Urrestarazu Garmendia</b>	Betelu	00:37:30
<b>Iñaki Elizalde Zubillaga</b>	Betelu	00:37:36
<b>Josu Oreja Arratibel</b>	Errazkin	00:37:38
<b>Andrea Etxarri Zabaleta</b>	Errazkin	00:37:38
<b>Iñigo Oreja Sanz</b>	Errazkin	00:38:08
<b>Iñigo Garmendia Goikoetxea</b>	Betelu	00:38:31
<b>Mikel Zubillaga Areitio</b>	Betelu	00:38:35
<b>Mattin Ezenarro Zendoia</b>	Azkarate	00:39:10
<b>Josu Elizalde Zubillaga</b>	Betelu	00:39:47
<b>Mikel Otamendi Ezkurdia</b>	Betelu	00:40:27
<b>Carlos Mitxelorena Arraztoa</b>	Betelu	00:40:56
<b>Jon Elordi Ezkurdia</b>	Atallu	00:41:09
<b>Ane Barberia Urreaga</b>	Lekunberri	00:42:02
<b>Asier Elizalde Zubillaga</b>	Betelu	00:44:16
<b>Maria Ordorika</b>	Azkarate	00:45:11
<b>Leire Olano Lasa</b>	Betelu	00:45:11
<b>Iñaki Satrustegi Gorostegi</b>	Betelu	00:47:44
<b>Ainhoa Parareda Rodes</b>	Intza	00:52:07



## Eskualdeko kadeteen sailkapena

(3.500 metro)

<b>Izei Goñi Martinikorena</b>	Errazkin	00:11:36
<b>Conor Aranburu O'Reilly</b>	Betelu	00:11:44
<b>Igor Nazabal Otamendi</b>	Betelu	00:12:06
<b>Aner Arraztio Estanga</b>	Betelu	00:15:54

## “Orain arte, konfiantzaz egin dut lan herritarrekin”

*Azarotik, Irati Ibarbia da Kirol Mankomunitateko Kirol teknikaria. Apenas pasatu den denborarik ibarrera heldu zenetik, eta orain arte diru kontutan ibili behar izan du batik bat, baina gogotsu heldu dio erronkari. Araitz-Beteluko krosaren balorazio positiboa egin du, eta aurrera begira herritarren iritziak eta beharrak biltzea gustatuko litzaiokeela azaldu du.*

### **Ibarrakoa zara izatez, eta Lekunberrin bukatu duzu lanean. Nolatan aurkeztu zinen Kirol teknikari izateko lanpostura?**

Aurretik, Gipuzkoako kudeaketa enpresa pribatu batean aritu naiz lanean, lau urte pasatxo. Lagun batek esan zidan lanpostu hau atera zela, eta apuntatu egin nintzen, 2019-2020 inguruan. Gero, bertan behera geratu zen prozesua, eta berriro atera zenean, serioago hartu nuen eskaintzarena, beste lana utzita neukan-eta ordurako. Gipuzkoako beste Kirol teknikari prozesutan ere banabil, halere.

Kirol kudeaketa asko gustatzen zait. Enpresa pribatu batean ezegonkortasun handiagoa dago, presio handiagoa, beste mundu

bat zen... egiten nuen lana gustatu egiten zitzaidan, baina beste baldintza batzuekin egin nahi nuen lan. Horregatik hasi nintzen prozesu egonkorrago baten bila.

### **Noiz hasi zinen zehazki Kirol Mankomunitatean lanean?**

Azaroaren 15ean hasi nintzen. Aurreko teknikariak, Laurak, irailaren 30 inguruan izan zuen azken lan eguna, eta nik bi hilabete inguru daramatzat.

### **Zer ikasi duzu?**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua egin nuen Gasteizen, eta irakaskuntzako masterra ere bai ondoren, Sevillan. Ez daukat kudeaketaren inguruko masterrik, baina esperientzia bai.

### **Denbora gutxi pasatu da hasi zinenetik. Nola moldatu zara?**

Martxan jartzeko, hoberena litzateke aurreko teknikariarekin, Laurarekin, prozesu aldaketa egitea, baina zaildu egin da, alde batetik, hilabete eta erdi pasatu delako aldaketa hori egiteko eta Laura beste lan batean ari delako dagoeneko, urrutiago, eta komunikatzeko zailtasunak daude orain. Baina, tira, pixkanaka joan naiz gauzak egiten, Joseba Ordoki Lekunberriko Kirol zinegotziak asko laguntzen dit, eta kiroldegiko langileek ere bai, urte pila bat daramatzate-eta hemen lanean, eta asko dakite.

Hasi nintzenean, kontu batzuek lehentasuna zuten, eta horiekin jarri nintzen buru-belarri, hala nola diru laguntzak eskatzea gobernuan, Araitz-Beteluko krosa, kontabilitatea... Ni haserako ikasturtea martxan zegoenez, dagoena ulertzea izan da nire zeregina, urte hauetan guztietan zer egin den ikusi eta, aldaketa handirik



Irati Ibarbia. Arg: Labrit



## Idatzi bat egin nahiko nuke

egin gabe, horiei segida eman. Ikasturte berri bat hasteko aukera izango banu, aurten ikusitakoa baliatu ahalko nuke, beharrezko ikusten ditudan aldaketak egin... baina, bitartean, ezagutzen dena baino ez.

### Noiz arteko kontratua duzu, bada?

Ruben Goñirena da lanpostu hau, eta bera eszedentzian dago; epea amaitzean erabakitzen duenaren arabera ikusiko da zer gertatzen den; ordu arte arituko naiz.

### Herri dezente hartzen ditu Kirol Mankomunitateak: Araitz, Betelu, Lekunberri, Larraun eta Areso. Zeregin garrantzitsua du kirolaren arloan ibar honetan. Nola ikusten duzu dena antolatu behar izatea? Zaila?

Orain arte, gehienbat, Beteluko zinegotziarekin eta Araxes taldearekin izan dut harremana, eta haien eta nire artean antolatu dugu Araitz-Beteluko krosa.

### Zer balorazio egin duzue krosaren inguruan?

Orain ari gara balorazioa egiten, balantze ekonomikoa. Azken hiru urteetan ezin izan da egin, eta ez genekien zenbat jende apuntatuko zen. Gainera, eguraldi txarra egin zuen, ni berria nintzen... Baina beste antolatzaileak oso ohituta daude, urtero zeregin antzekoak ditu bakoitzak, eta arazorik gabe antolatu genuen. 144 pertsonak eman zuten izena, 67 umek, eta eguraldia kontuan hartuta, jende askok parte hartu zuen. Beraz, pozik gaude.

### Zer giro ikusi zenuen herritarren artean? Inplikazioak harritu egin zintuen?

Bai, erabat. Bezperan, larunbatean, denok geratu ginen, eta jende pila bat azaldu zen. Denak zeuden

laguntzeko prest, baita azken orduko ezustekoekin ere. Gustura aritu naiz haiekin lanean. Ni berria nintzen, eta niri galdetzen zizkidaten gauza batzuk, baina nik ere bai haiei; konfiantzaz egin dugu lan.

### Lekunberriko Legua da hurrengo ekitaldi garrantzitsua. Zehaztu duzue data?

Oraindik ez dugu zehaztuta. Ikusi dut aurreko urteetan zein datatan egin izan zen, eta data horien bueltan egiten saiatuko gara. Kontuan hartu beharko dugu inguruan zein beste lasterketa-eta dauden, ez kointziditzeko, eta ahalik eta jende gehienak eman dezan izena.

### Iaz, ibilbidea aldatu zen. Hori mantenduko da aurten ere?

Begiratu beharko dut zergatik aldatu zen ibilbidea, zer gertatu zen... Printzipioz, bai. Badakit korrikalariei eta bertakoei galdetu zitzaieala aldaketa hori egin aurretik, eta parte hartzea jaisten ari zelako erabaki zela ibilbidea aldatzea, agian kanpotik etorritako korrikalariarentzat motzegia zelakoan. Jende gehiago apuntatu zen, eta balorazioa positiboa izan zen. Aurten ere bilduko gara eta ikusiko dugu zer erabakitzen den, eta betiere helburua izango da ahalik eta parte hartzerik handiena izatea.

### Aurrera begira, eta zure esperientzia kontuan izanda, zein izango da erronka nagusia herritarrek kirola egitera animatu daitezen?

Oso zaila da orain hori jakitea. Inkestak egitea gustatuko litzaidake, eta jasotako erantzunekin balorazio bat egin. Horrela, jakingo nuke herritarrek zer nahiko luketen hurrengo ikasturtean, eta, nik dakitenaren arabera, aldaketa batzuk edo beste batzuk egingo nituzke.

Eguneratutako idatzi bat egin nahiko nuke, gaur egungo gai, gaur egungo berri, kontu eta kantuen inguruko hausnarketa egin. Baina berandu nabil, edo mundua azkarregi eta azkartuz. Gaurra, egun batetik bestera zahar bilakatzen da. Gaurra bat-batean ez da gaur, atzo da, astea, hilabetea, lustroa, izandakoa da, eta behin izan zen bat azkenik. Historia, istorioa... asmakizuna batzuetan, kondaira edo mitoa. Egun batetik bestera gero eta laburragoak dira gertakarien aztarnak. Oroimenak gero eta zaurgarriagoak dira.

Behin esan zuten memoria ergelen inteligentzia dela, hain zuzen ere Albert Einstein bera izan zen hitz hauen esataria, eta ergeletik ez zuen gehiegi liburuek diotenez. Agian honexegatik ari gara memoria pixkana ezabatzen, ergelkeriak atzean uzteko helburuari jarraika. Baina orduan ahazten badugu nola gordeko dugu ezagutza, orain artean ikasia eta orain artean garatua? Erokeria dirudi memoria ezabatzeak ezta?

Agian Einstein ez zen zuzen ibili esaldi horrekin? Berak esan zuenez, oker bazen, beste pertsona bakar bat nahikoa izango zen bere esanak deuseztatzeko. Ohore bat izango litzatekeen arren, ni ez naiz hori egitera ausartuko dena. Nire kuttunenetakoa den Eduardo Galeanoren esku utziko dut lan hau. Bere hitzetan. Besteengan bizirauten dugu: besteen oroimen eta ekintzetan. Agian balazta zapaldu beharra daukagu, oroimen eta ekintza gehiago.

Baina bueno, nik zer dakit, idatzi nahi nuena ahaztu badut.



# Hitz aspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Porioan

*Denboan luzatze horri itten dio nolabatte erreferentzie porioan hitzek. Esanan porioan entenditzen due umeak, ikusien porioan ikasi; emanan porioan lorittuko dee esnea eta iriñe bexamela bihurtu arte; estutu ta estutuen porioan roskaz pasatzen dee askotan tornilloak; denboan porioan erdoildu burnie o lizundu ospeleko txokoak. Ibilien porioan ezautzen dee baztarrak; ibillien porioan gastatzen zolak.*

*Baino hain da erlatiboa pasatzean porioan neurtzen duun denboa hoi!*

*Zenbat denboa behar da ba, erlejuen direzioan eskuekin tripota iurtziz-iurtziz umean miñe ebaporatzeko. "Senda, senda mediku, umeak miñe non du; senda, senda mediku, umeak miñik ez du!" Prankotan kantatuen porioan ikasi giñun min ttikik sendatzeko formula magikoa.*

*Zenbat denboa behar da ba, falta den hue faltan ez botatzeko. Etxean sartzen giñen aldiro sillon hutsei beittuen porioan ikasi giñun ez zeona ikusten.*

*Denboak dena sendatzen dola, batzuk. Denboak dena bere lekun jartzen dola, besteak. Denboaz etorriko deela urek been onea. Denboakin ikasten dela. Denboak ez dola atxoitten, o aurea o atzea baño ez gelditzeko ataskatue.*

*Hain da, ordea, erlatiboa denboa.*

*Ume-umetan lotsa askoik ez omen da izaten; Noski! Esanan ta ikusien porioan barneratzen dee ta giza-arauek, ez gea ikasita jaiotzen. Zartuta, berriz, lotsa guztik galtze omen dee. Hoixe! Bizi behar duena bizita, zein hasi behar zaie kontu eske. Ta bi muturren arteko parentesi luze hortan,... biziraun, ahalik eta hobekina. Parentesi hortan urtean porioan joaten zaigu azala goortzen. Norbeak daki zer eman eta zer jaso don ingurun. Kanpotik heldu deen zaplaztekoak, esanak, eiñek, azioak ez dee norbean zama. Eraso hoik denak nola kudeatzen deen, hoi bai, hoi da norbean lana. Urtean porioan ikasten da hori re: alea gorde ta lastoa haizeak eman dezan uzteana.*

*Denboakin, urtean porioan ikasten omen duu enPOderatzen. Baina zeñen hitz POTzoloa enpoderatze o POTerea hartze hoi, aizue. Norbeak markatzen ditto gañea bere temPOak, enpoderatze prozesu hortan: emanan porioan, jasoan porioan. Enpoderatuz. Enpo in arte batzutan.*

*Denboa, tempoa, enpoderatu, enpo, porioan... hain da erlatiboa, aizue!*



Hurrengoa:

Mikel Zubillaga (Betelu)




Iñaki Elizalde  
(Betelu)

# maite ditut maite gure bazterrak

## Betelu-Arrateko langa-Errazkin- Betelu

**Ibilbidea:** zirkularra  
**Distantzia:** 10 km  
**Desnibela:** +550m  
**Zailtasuna:** erraza



### Zergatik aukeratu dut?

Duela gutxi erakutsi zidaten bidea da. Inoiz ez nintzen pasa, eta gustatu egin zitzaidan. Gainera, ibilbidearen zati batek pandemia garaiko oroitzapen onak ekarri zizkidan burura, kar-kar.

### Bidea:

- 1 Beteluko uretako aparkalekutik aterata, eskuineko bidea hartu, eta zuzen segi 2 kilometro Lulotaseraino, eta hor, eskuineko bideari jarraitu Kastabaleko pista bukaera arte. Ez dauka galbiderik!!!
- 2 Behin pista bukaera iristean, Belutako langa jartzen duen kartel bat egongo da; bide horri jarraitu. Iturri bat ikusiko dugu, ur ederra indarrak hartzeko!!! Bideari jarraituz, langa gorri batera iritsiko gara: Arrateko langa izena du.
- 3 Arrateko langa pasa, eta 20 metro aurrera jarraituz, ezkerrera xenda bat dago. Hura hartu, beherantz doan xenda da.
- 4 Pista batera iritsiko gara, eta hemen, hesia pasaz, beherantz hartu behar dugu, Errazkingo herrirantz.
- 5 Behin Errazkinera iristean, herria aldetik aldera pasa, eta errepideari jarraituz araztegiara iritsiko gara. Bide horri jarraitu, eta halako batean pista bukatu egingo da; langa bat dago, hura pasa, bideari segi eta berriz Lulotasen agertuko gara.
- 6 Lulotasa iritsi ondoren, dena beherantz, igo garen leku berdinetik Betelura iritsi arte.

# Beteluko Hirigintza Plana publiko egin du udalak

**Beteluko Udalak herritarren esku jarri du orain arte adostutako Hirigintza Plana. Otsailaren 20ra arteko epea izanen da alegazioak aurkezteko. Besteak beste, etxebizitzaren antolaketa, jarduera ekonomikorako eremuak eta espazio publikoetarako zerbitzuak biltzen ditu.**

Legegintzaldi honen azken txanpan, Beteluko Udalak aurrera egin nahi du Hirigintza Planaren tramitazioarekin. Hasiera batean onartutako plana jendaurrean jarri du, nahi duenak alegazioak jartzeko aukera izan dezan. Beteluko udaletxean egoteaz gain, Beteluko Udalak duen web orrian ere ikusgai dago dokumentazioa: [betelu.eus](http://betelu.eus) helbidean, hain zuzen. Alegazioak egiteko epea otsailaren 20an bukatuko da. Hala ere, norbaitek modu arrazoituan epe hori luzatzea eskatuko balu, ez legoke arazorik egonen epea luzatzeko, udalak azaldu duenez.

Horretaz gain, Beteluko Udalak hasiera batez onartutako plan hori Nafarroako Gobernuak hainbat departamenturi eta Kantauri Ur Konfederazioari bidali diote, besteak beste, informatu dezaten. Alegazioak



Betelun azken urteotan eraiki diren familiabakarreko etxebizitzetako bat. Arg: Labrit

eta aipatutako erakundeetatik jasotako txostenak aztertu ondoren, udalak behin-behineko onarpena emanen dio planari, onartzen diren alegazioak eta txostenetatik eratorritakoak aintzat harturik. Azkenean, Nafarroako Gobernuak emanen dio behin betiko onarpena.

Oraindik ere Betelun indarrean den Hirigintza Plana 1982. urtekoa da, eta, udalak adierazi duenez, plan berri hau aurreko horren jarraipen moduko bat izanen da, ez baitu erroitik aldatuko. Herrian proiektu berriak martxan jartzeko modua egiteaz gain, aukerei bide ematea ere badu helburu, besteak beste, jarduera ekonomikoak garatzeko eremuak aurreikusten baititu.

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**TAXI SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**GALBURU**  
okindegia - panadería  
Egur-labean egina!

Alde Zaharra 50  
LEKUNBERRI  
948 50 40 42

**Construcciones Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK  
IGELTSERITZA  
FATXADAK  
TEILATUAK

Oztegin kalea 2, Lekunberri  
construccionesganarbe@gmail.com

616 457 540  
636 827 846





***Toki aldapatsuetan,  
famiabakarreko  
etxebizitzak egitea  
hobesten du; eremu  
lauagoetan, berriz,  
etxebizitza kolektiboak.***

#### **Etxebizitzaren antolaketa eta garapen industrialia**

Etxebizitzak dira hirigintza Planaren ardatz nagusietako bat. Alde batetik, maldak dauden eremuetan edota toki menditsuetan, famiabakarreko etxebizitzak hobesten ditu. Beste alde batetik, eremu lauagoetan, etxebizitza kolektiboak egitea bultzatzen du, hau da, familia bat baino gehiago biziko diren etxebizitzak. Are, azken urteotan egin diren etxebizitzek ere badituzte ezaugarri horiek, eta oraingo planak biltzen dituen irizpideen arabera egin dira.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, berriz, bi lur eremu zehazten ditu horretarako: Wisko parean dagoen eremua da horietako bat, Araxes ibaiaren ezkerreko aldean dagoena. Wisko fabrikak handitzeko beharra izango balu, esate baterako, eremu hori erabiltzeko aukera izanen luke;

hau da, garapen industrialerako gordetako eremu bat izanen da. Irihandian dagoen zelaia da garapen industrialerako erabil ahal izanen den beste tokia; kasu horretan, ez da izanen garapen industrial oso handi batentzat, oro har jarduera ekonomikorako baizik.

***Wisko pareko eremua  
eta Irihandia garapen  
industrialerako erabili ahal  
izanen dira.***

Bi eremu horiez gainera, Irigoien auzoan 90eko hamarkadan egin zen proiektu bat ere gordetzen du oraindik ere Hirigintza Planak. Izan ere, gaur egun Amavir zahar etxea dagoen toki inguruan, bainuetxe bat egitea ere aurreikusi zuten, baina, azkenean, zahar etxea bakarrik eraiki zuten. Dena den, bainuetxea egiteko asmoa zuten espazioa aintzat hartuko da proiektu horixe bera edo beste bat garatzeko aukera sortuko balitz.

#### **Kaleak eta espazio publikoak**

Kaleetan zenbait zabalgunek egitea ere jasotzen du planak, eta aparkalekuak egiten dira etxebizitzak eraikiko diren orubeetan, herritarrek eremu publikoan aparkatzeko aukera izan dezaten. Antigua kalean egin dituzten azken etxebizitza kolektiboek, esaterako, badute aparkaleku bat, eta horien atzeko aldeko urbanizazioa osatu nahi du udalak. Halere, oraingoz ez dute horren inguruko xehetasun gehiagorik eman.

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com

## KULTUR TEKNIKARI IZATEKO DEIALDI PUBLIKOA LEKUNBERRIN

Deialdia, Kulturako teknikari lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, C1 mailako euskara-ezagutza duena, eta aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda osatzeko

Lekunberriko Garapen Elkartea (LGE) udal sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluak, 2022ko abenduaren 1ean, hautaketa-proben bidez, Kulturako teknikari plaza bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko oinarriak onartzea erabaki du (lanpostu horretarako euskara jakin beharko da), eta aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bat ere eratu da.

**Interesatuak deialdiaren oinarriak ikusi ahal izango dituzte udal web orrian:**

**[www.lekunberri.eus](http://www.lekunberri.eus).**

Deialdian parte hartzeko eskabideak Lekunberriko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Alde Zaharra, 41 zk., 31870-Lekunberri) (9:00etatik 14:00etara), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2020 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz, 20 egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskabide horiek bat etorri beharko dute deialdi honetan l. eranskin gisa argitaratutako ereduarekin.

**Lekunberri, 2023ko urtarrilaren 10ean.**

**Alkatea, Gorka Azpiroz Razquin.**

\*Informazio gehiago: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2023/18/19>

30



**ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldiro  
eskaintza bereziak

**OTXOTORENA**  
okindegia  
**ARRIBE**  
**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

**MALLOAK**  
ARTZAI GAZTAK  
Granja Martikonea, GANTZA, Nafarroa  
Jabi, 649 472 057 + Iosune, 660 511 097  
Malloak.com | info@malloak.com  
**IDIAZABAL**

**AMAIRU BAR**  
GITXKO PIZZAK,  
KOPA BERGIZAK  
948504352

**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79

**Antsoñea**  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
www.antsonea.com  
Uztegi (Araitz)

**TAXILON**  
661 202 249  
(9 plaza)  
E-posta: lotamendi5@gmail.com  
Atallu - Araitz  
Lontxo Otamendi Artola



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara

rey del bacalao  
**super mar**

**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)



## ▶ AGENDA

### OTSAILA

- 3- *Goi mailako kirola eta ikasketak* uztartzen mahai-ingurua, Ibai Tolosaren (piragua) eta Ander Martinez de Rituertoren (pertika) eskutik, 19:00etan, Arribeko Elorri elkarte; *Euskaraz Bizi* taldeak antolatua.
- 3- Santa Ageda bezpera Araitzen, Intzan.
- 4- Santa Ageda bezpera Larraunen eta Lekunberrin. 16:30ean, Lekunberriko plazan. 18:30ean, Iribasen. 9:30ean, Baraibarren. Ondoren, mokadu bat ostatuan.
- 4- Beteluko ihoteak. Egitaraua, atzean.
- 4- Jonatan Garciaren hitzaldia Gabarin, 19:00etan.
- 4- 2023ko Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa eta Urrezko Harri-jasotze Txapelketa, Arribe-Atalluko frontoian, 18:00etan. Aizkolariak: Txomin Amundarain-Mikel Larrañaga eta Suharri Rodriguez-Julen Gabirondo. Harri jasotzaileak: Beñat Telleria eta Gorka Etxeberria.
- 13- Lekunberriko etheen proiektu historikoaren aurkezpena: aurrerapenak eta etorkizuneko estrategiak, udaletxeko aretoan, 19:00etan.

11- Lekunberriko ihoteak. Egitaraua, atzean.

15- *Ezagutu zure bizitza behar bezala birgaitzeko* hitzaldia, Lekunberriko udaletxeko batzar aretoan, 19:00etan.

18- Aldazko ihoteak. Egitaraua, atzean.

18- Citizen On proiektuaren aurkezpena, Lekunberriko udaletxeko batzar aretoan, 18:00etan.

25- *El dolor se aprende (y se puede desaprender)* izeneko dokumentala Beteluko Zigari elkarte, 18:00etan.

25- Baraibarko ihoteak. Egitaraua, atzean.

25- Arruizko ihoteak. Egitaraua, atzean.

### PUBLIZITATEA MAILOPEN

Labrit Multimedia - 948 210 103  
[mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)

**SAN MIGUEL**  
 Taberna-Jatetxea  
 Arribe  
 948 51 31 34

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
 HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
 948 50 43 31  
 Lekunberri

**IORTIA** CLÍNICA DENTAL HORTZ KLINIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785  
 Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
 Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
 ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

  
**aseguru**  
**gintza**  
**XXI**

### ASEGURU AHOLKULARIAK

*Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



CONSTRUCCIONES  
  
**ERAIKUNTZAK**  
**CONSTRUCCIONES**  
**URANGA/SAIGÓS, S.L.**

TEILATUAK  
 FATXADAK  
**ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA**

**665 708 683**

Lekunberri

# IHOTEAK

## 2023

### Betelu – Otsailak 4

- 10:00etan**, mozorroen eta karrozen desfilea
- 10:30ean**, kalejira Elektrotxandakarekin. Tartean, karrikadantza plazan
- 15:00etan**, herri bazkaria frontoian
- 17:30ean**, dantzaldia Trikidantz taldearekin
- 23:00etan**, DJ Jotatxo goizaldera arte

### Lekunberri – Otsailak 11

- 10:30ean**, hamaiketakoa Toki Alai sagardotegian. Sarrerak 20 euro, sagardotegian bertan (Udalak txartel bakoitzaren 5 euro ordainduko du)
- 12:30ean**, mozorroen desfilea eta erronda txarangarekin, Euskalduna tabernatik hasita
- 14:30ean**, herri bazkaria frontoian. Txartelak Mitxauseanean (helduak 23,10 euro eta haurrak 12,10 euro)
- 18:30ean**, Irurtzungo zanpantzarrak eta pertsonaiak herrian zehar
- 20:00etan**, Attezarkoren erretzea eta dantza herrikoiak

### Aldatz – Otsailak 18

- 14:00etan**, bazkaria elkartearen. Ondoren, puskabiltza

### Baraibar – Otsailak 25

- 10:00etan**, panpina egitea herriko plazan
  - 11:00etan**, hamaiketakoa herriko ostatuan
  - 12:30ean**, kalejira herrian zehar trikitilariekin
  - 14:30ean**, bazkaria herriko ostatuan. Ondoren, jolasak!
  - 19:00etan**, panpina erretzea
- Mozorroa egiteko gaia: zirkoa*

### Arruitz – Otsailak 25

- 11:30ean**, hamaiketakoa elkartearen
- 12:00etan**, puska biltza Attezarkorekin
- 14:00etan**, bazkaria elkartearen
- 17:00etan**, puska biltza eta iluntzean Attezarkoren erreketan
- 20:00etan**, merendu afaria elkartearen

### Gaintza - Martxoak 4

- 11:00etan**, puska biltza trikitilariekin
- 19:00etan**, poteo herrikoia
- 21:00etan**, afari autogestionatua
- 00:00etan**, DJ Oixani

### Gorriti – Martxoak 4

- 12:00etan**, Kakamomo panpina egingo dugu
- 13:00etan**, poteoa elkartearen
- 14:30ean**, Herriko Etxean bazkaria Ondoren, bingoa eta soinujoleak
- 19:00etan**, herritik kalejira musikatua eta Kakamomo erreko dugu
- 21:00etan**, herri afari autogestionatua
- 00:00etan**, parranda